

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑONGO UDALA

Behin betiko onespena ematea Armiñongo udal barrutiko administrazio batzarrei dirulaguntzak ematea eta administrazio batzarren finantzazioa arautzen dituen ordenantzari

Jendaurreko aldian inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, automatikoki behin betiko bihurtzen da udalbatzaren 2018ko abenduaren 14ko erabakia, hasierako onespena eman ziena hainbat udal ordenantzari. Ordenantza horien testu osoa argitaratzen da, denak egon daitezzen jakinaren gainean eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatzen duena betetzeko.

Armiñongo udal barrutiko administrazio batzarren finantzaketari buruzko ordenantza

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen bidez ezartzen dira Armiñongo udalerriko administrazio batzarrei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak, ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak finantzatzeko, herriko funtzionamendurako gastuak, alegia, hala nola argiteria, garbiketa, herriko jaiak, parke eta lorategien zaintza.

Ez da dirulaguntzarik emango edateko urarekin, eta euri uren eta ur beltzen saneamendua-rekin lotutako gastuetarako.

2. artikulua. Ekarpenen izaera

Ordenantza hau aplikatuz Armiñongo udalerriko administrazio batzarrek jasotzen dituzten diru zenbatekoak beren ogasunen ohiko diru sarrerak dira, libreki xedatzekoak eta inongo baldintzarik gabekoak, arautzen dituen araudiaren konforme dagozkien zerbitzuak sostengatu eta emateko, nahiz administrazio batzarren beraren ohiko antolamendu eta kudeaketa gastuak finantzatzeko.

3. artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza hauek jaso ahalko dituzte Armiñongo udalerriko administrazio batzarrak, baldin eta legez eratuta eta erregistratuta badaude.

4. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

Lehenengoa: toki erakunde txikien gobernu organoak legez eratuta eta erregistratuta egon behar dute. Erakunde eskatzaileak egunean izan beharko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eskaera aurkeztzen den momentuan bertan eta prozesu osoan zehar (emakida eta ordainketa).

Bigarrena: administrazio batzar bakoitzeko errejidore-presidenteak, edo horrek izendatutako pertsonak, Armiñongo Udaleko idazkaritzan aurkeztu beharko ditu administrazio batzarren urteko kontuak (gastuak, sarrerak eta kutxako izakinak) hurrengo urteko irailaren 30a baino lehen, edo arauz ezarritako epean. Kontuak Arabako Foru Aldundiak eskatzen duen formatuan onartuta egon beharko dira, eta Aldundiaren erregistroko sarrera eduki beharko dute.

Hirugarrena: onuradunek men egin beharko diote Udalak egin dezakeen finantza egiaztatze eta kontrol orori.

Laugarrena: onuradunek Udalari kontzejuko lokalak laga beharko dizkiete bertan jarduerak egiteko.

5. artikulua. Udalaren betebeharrak

Udalak betebehar hauek izango ditu:

Lehenengoa: Udalak urtero jarri beharko du bere aurrekontuetan partida bat, transferentzia arrunt gisa, erakunde horiek ordenantza honetan ezarritako moduan egiten dituzten gastuak finantzatzen laguntzeko.

Bigarrena: transferentzia hiru hilean behin egingo du, Udalak Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza (TEFFF) jasotzen duenean, beti ere administrazio batzarrek ordenantza honen 4. artikuluan adierazitako betebeharrak bete badituzte.

6. artikulua. Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa eta banaketa formula

Lehenengoa. Administrazio batzarren artean banatuko den diru kopurua, Armiñongo Udalaren aurrekontu orokorreko partida honetatik hartuko da: 943.434.000 udalerriko administrazio batzarrei transferentzia arruntak.

Bigarrena: Urteko aurrekontu partidari dagokionez, banatzeko formula hau izango da:

Aurrekontu partida administrazio batzarren artean zati berdinetan banatuko da urtero.

7. artikulua. Bateragarritasuna beste diru sarrera batzuekin

Ordenantza honetan ezarritako finantzaketa bateragarria da administrazio batzar bakoitzak dituen berezko diru sarrerekin, bai eta beste edozein entitate publiko zein pribatutatik, Armiñongo Udalerria barne, jaso dezakeen beste edozein dirulaguntza edo sarrerarekin ere.

8. artikulua. Dokumentazioa

1. Ordenantza honen 4. artikuluan eskatutako dokumentazioa.

2. Jasotako kopuruaren gastuak frogatzen dituzten agiriak: froga balioa daukaten fakturak edo kontabilitate agiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpulsatuak).

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko datu hauek argi eta garbi azaltzen ez diren ordainagiriak, fakturak, tiketak...:

– Jaulkitzailea: haren izena edo sozietatearena, eta nortasun agiri nazionala edo identifikazio fiskaleko zenbakia.

– Hartzailea: sozietatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia (dirulaguntza jaso duen erakundearekin bat etorri behar da).

– Gastuaren xedea.

– Data.

– Balio erantsiaren gaineko zerga: ezarri den zerga tasa.

9. artikulua

Ordenantza honetan ezarritako betebeharretakoren bat ez betetzeak urteko finantzaketa ez jasotzea ekarriko du.

**Administrazio batzarrei dirulaguntzak emateko oinarriak
arautzen dituen berariazko ordenantza****1. artikulua. Dirulaguntzen xedea**

Ordenantza honen bidez Armiñongo Udalak dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, udalerriko administrazio batzarrek sustatzen dituzten eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko zerbitzu publikoak garatzera bideratzen diren zerbitzu publikoak finantzatzeko helburuaz.

2. artikulua. Printzipio informatzaileak

1. Ordenantza honen bidez araututako dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da ebazpena ematen den unean aurrekontuan dirua baliagarri egotea, bai eta kreditu egokia eta nahikoa egotea ere.

2. Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira.

3. Armiñongo Udalak lehendik dirulaguntza eman izanak ez die inolako eskubiderik ematen eskatzaileei eta ez da irizpide erabakigarria izango dirulaguntza berriro ematerako orduan.

4. Dirulaguntza hauek emateak ez dakar berekin inolako kontratu harremanik, ez zibilik, ez lanekorik, ez administraziokorik, Armiñongo Udalaren eta dirulaguntza jasotzen duen erakundearen artean.

5. Udal araudi honen aplikazio eremutik kanpo egongo dira beren izaeragatik ordenantza honen xedearekin zerikusi zuzena ez duten laguntzak, bai eta indarreko araudia betez Armiñongo Udalak ematen dituen prestazioak ere.

6. Oinarri hauen arabera emandako laguntzak dirulaguntza finalistatzat joko dira, eta, beraz, bete egin beharko dituzte Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1977 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta dagokion legedi osagarria.

3. artikulua. Diruz lagun daitekeen xedea

Administrazio batzar bakoitzak obra bakarrerako eskatu ahalko du dirulaguntza.

a) Diruz lagundu daitezke honako zerbitzu publiko hauetara bideratutako obrak:

1. Kontzeju etxea eta beste eraikin batzuk zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria, baldin eta horietan zerbitzu publikoa ematen bazaie herritarrei.

2. Kirol ekipamenduak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria.

3. Haurrentzako jolasguneak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria.

4. Berdeguneetarako eta hiri lorategietarako guneko publikoetako obra berria.

5. Hiri lurzoruan kale publikoen zoladura eta administrazio batzarren bideetatik herrietara eta hilerrietara iristeko bideak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria.

6. Argiteria publikoaren, argindarraren eta telefonoaren eta haien instalazioen lurpeko kanalizazioak eguneratzeko eta konpontzeko obra berria.

7. Hilerria konpontzea edo eraikitzea.

8. Administrazio batzarretako elementu bereziak birgaitzeko eta konpontzeko obrak, hala nola ermitak, iturriak, errota, harraskak, parroquia elizak..., baldin eta administrazio batzarrenak badira edo haren jabetza edo erabilera jabeak laga badio dagokion administrazio batzarri. Erabileraren lagapenak indarrean egon beharko du obra bukatzen den egunaren hurrengo hogeitun urtean.

9. Bide publikoak seinalezatzeko obrak.

b) Ez da emango dirulaguntzarik administrazio batzar bakoitzak jabetzan edo beste batek lagata dauzkan instalazioak mantentzeko. Ez da dirulaguntzarik emango mantentze lanekin lotutako gastuetarako, ezta edateko uraren horniketa sareak eta euri uren eta ur beltzen saneamendu sareak konpontzeko eta mantentzeko gastuetarako ere.

4. artikulua. Erakunde onuradunak

Onuradun izango dira Armiñongo udalerriko administrazio batzarrak, legez eratuta eta erregistratuta badaude.

Nolanahi ere, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarrekikoak egunean izatea.

b) Armiñongo Udaleko diru kutxetako ordainketak egunean izatea.

c) Beste dirulaguntza batzuk itzultzeko betebeharren ordainketak egunean izatea.

d) Ez edukitzea dirulaguntzen onuradun izatea eragozten duen kausarik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. artikulua. Baldintzak eta balioespen irizpideak

1. Ondoko hauek dira diruz lagundutako obra bakoitzerako baldintza bereziak:

a) Ordenantza honetako 3. artikuluko a) apartatuan azaltzen diren zerbitzu publikoetarako obrak:

– Obrak egiteko gastuetarako emango diren dirulaguntzen zenbaketak, guztira, ezingo du gainditu udal aurrekontuan “obren ziozko dirulaguntzak administrazio batzarrentzat” izeneko aurrekontu aplikazioan esleitutako zenbatekoa, dirulaguntza deitzen den unean.

– Obra urrats bat baino gehiagotan eginez gero, urrats horietan emandako dirulaguntza, guztira, ezin daiteke udal aurrekontuan agertzen den baino gehiago izan.

– Obrarako dirulaguntza eman badu Arabako Foru Aldundiak obra txikien programaren bitartez, Armiñongo Udalak obra kostuaren defizitaren ehuneko 80ko dirulaguntza emango du, gehienez.

– Obrarako dirulaguntza eman badu Arabako Foru Aldundiak obra eta zerbitzuen foru planeko programaren bitartez, Armiñongo Udalak obra kostuaren defizitaren ehuneko 50eko dirulaguntza emango du, gehienez.

– Obrarako dirulaguntza eman badu Eusko Jaurlaritzak edo beste erakunderen batek, Armiñongo Udalak, gehienez, obra kostuaren defizitaren ehuneko 50eko dirulaguntza emango du.

– Obrarako dirulaguntzarik ez bada jaso inongo organismo edo erakundetatik, Armiñongo Udalak obra kostuaren defizitaren ehuneko 35eko dirulaguntza emango du, gehienez.

– Ez da dirulaguntzarik emango Armiñongo Udalak azken 10 urtean diruz lagundu dituen zerbitzu publikoen gaineko obretarako. Epe hori, diruz lagundutako azken obra fasetik aurrera kontatuko da.

6. artikulua. Zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbateko osoa ezin daiteke izan Armiñongo Udalaren urte bakoitzerako aurrekontuko 900.734.000 partidan esleitutako zenbatekoa baino handiagoa.

7. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedura

Eskaerak aurkeztea:

1. Dirulaguntza hauek jaso ahal izateko dokumentazioa aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa espresuki eta formalki onartzea.

2. Aurkeztu beharreko agiriak:

– Eskaera ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

– Diruz lagundu behar den jardueraren justifikazio memoria, gutxienez, honakoak adieraziko dituen: egin beharreko obraren deskribapen laburra, horren kokapen fisikoa eta egingo diren lanen zerrenda.

– Obraren aurrekontua.

Instrukziorako eta ebazpenerako organo eskuduna:

1. Espedientea bideratzeko eskumena duen organoa alkatetza izango da.

2. Ebazteko eskumena duen organoa udalbatza izango da, aurretiaz Ogasun Batzordeak baieztatu irizpena emanda eta dagozkion txostenak jasota.

Aztertzea eta ebaztea:

1. Espedientearen instrukzioan lan hauek egingo dira:

– Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eskatu, besteak beste, arloko teknikariei eta idazkari kontu-hartzaileari.

– Eskaerak ebaluatu, oinarri hauetan zehazten diren balioespen irizpideen arabera.

2. Udalbatzak ebazteko du dirulaguntzen emakida.

Udalbatzaren erabakiak arrazoitua izan behar du eta, gutxienez, erakunde eskatzailearen izena edo dirulaguntza ematen zaien eskatzaileen zerrenda jaso behar du.

Ebazpena eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie.

Ebazpena udalean eskariak aurkezteko epealdia amaitzen denetik bi hilabete pasatu baino lehen eman eta jakinarazi behar da.

Ebazpena emateko epea amaitzen bada jakinarazpena egin gabe, eskaria administrazio isiltasunaren bidez ukatu dela ulertzeko legitimatuta egongo dira interesdunak, zertarako-eta egokitzen dituzten errekurso administratiboak edo judizialak jartzeko.

8. artikulua. Justifikatzeko epea eta modua

Ondoko agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio udalari, dirulaguntza jasotzeko:

– Onuradunak sinatutako eskaera, alkateari bidaliko zaiona. Bertan, dirulaguntzaren ordainketa eskatuko du eta transferentzia zein kontu korrontetan egin behar den adieraziko du.

– Justifikazio fakturak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak).

– Aurkeztutako fakturen ordainagiriak.

– Beste erakunde edo organismo batzuk emandako dirulaguntzen egiaztagiriak.

Benetan justifikatutako gastuen zenbatekoa hasierako aurrekontuan eta eskaeran jarritako kostua baino gutxiago bada, ordainduko den dirulaguntza dagokion ehunekoa aplikatuz murriztuko da.

9. artikulua. Konturako ordainketak

Administrazio batzarrak, urteko kontuak aurkeztuz, frogatzen baldin badu ezinezkoa dela diruz lagundutako obra bati dagokion fakturaren ordainketari aurre egitea, udalak sartuko du fakturaren zenbatekoa administrazio batzarraren kontuan, dirulaguntzaren konturako ordainketa moduan.

Administrazio batzarrak ordainagiria aurkeztu beharko dio enpresa hartzekodunari 10 eguneko epean, udalaren banku transferentzia jasotzen duen egunetik kontatuta.

Udalak konturako ordainketa moduan sartuko duen zenbatekoa ezin daiteke inoiz izan emandako dirulaguntza baino handiagoa.

10. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Laguntza horiekin batera beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste laguntza, dirulaguntza edo baliabide batzuekin batera, ezin daiteke inoiz izan diruz lagundutako jardueraren kostuaren ehuneko 100 baino handiagoa.

Onuradunak helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderik lortzen badu, horren berri eman beharko dio dirulaguntza ematen duen organoari.

11. artikulua. Dirulaguntzak galtzea eta jasotako zenbatekoak itzultzea

Onuradunak dirulaguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo ezkututzen baditu, kendu egingo da dirulaguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa, lege dagozkion berandutze interesekin batera; nolana ere, baliteke jarduera horietatik bestelako erantzukizunak ere eratorzea.

12. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaz sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, aurretiaz Ogasun Batzordeak eta eskumena duten teknikariek txostena emanda.

13. artikulua. Legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege eta Erregelamendu Orokorrek xedatutakoari jarraituko zaio.

Armiñon, 2019ko otsailaren 20a

Alkatea

JUAN MUÑOZ BARTOLOMÉ